



HONDARRIBIA


D. L. S. S. 122/86 (Imp. R. Fernández, 1. Avda. 27. BUN)

25. Zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

60 pta.

1988 Urria



JUAN MARI ALTUNA MUÑOZ, 25 urteko arraunlari iaia, azkeneko urteetan arraun munduko txapelketa nagusietan parte hartu duen hondarribiarra dugu.

Bere lehengo medallak arraun olimpiakoan irabazten hasi bazen ere, herriko traineran ezinbestekoa izan da bukatu berri den aurtengo denboraldian.

Eliteko arraunlari izaki, goi mailako kirolarien bizimodura ohituta dago aspalditik.

Denboraldiaren balantze tiki bat egiteko ere aritu gara blagan.

- "Asto Pixtola" bertso paperak saltzen gogoratzen digu Lourdes Zubeldiak.
- Martin Ugaldek zenbait kanpotarrek Hondarribiko eguraldiaz duten jorrazten du.
- Bertso berriak oilo lentiladunei jarriak bildu dizkigu J.M. Mendizabalek.
- Juan San Martinek "Haurtzeko seaskan" kantari buruzko xehetasunak argitzen ditu.
- "Urbeltz" perretxiokok kokotak direla-koan jan omen ditzakezula dio J.J. Lapitzek.
- Helduen lanekin batean, Biteri Eskola idazle harrobia dela ikusiko duzu ere ale honetan.

JOAN ZEN UDA

Urriaren 28a dela eta, badakizu zer dioen esatera zaharrak: "San Simon eta San Juda, joan zen uda". Eta udarekin batean hainbat gauza eta jende joan zaizkigu: banistak, kanpoan antolatzen diren musikal-diak eta kultur ekintzak, estropadak, alardeak eta hegaluzeak. Ganbarako kutxan gorde ditugu denak alkanfor koskorren artean datorren urtera ere.

Zeregin berriak sortu edota zaharrak itzuli dira, ordea, udazkena, bide berriei ekin eta ibiltzeko garaia bait da. Ikastaroak, lantegiak, batzordeak, plenoak, liga eta kopa... berrito martxan abiatunak ditugu, ibiltzen hasiak.

Eta ibiliz hasi genuen urria, kilometroak eginez euskararen alde, hasi hemen eta Lesakan jarraituta, ibilian urratzen bait da bidea, eta euskararena ez da autopista, bide-xidorra baizik: bide xidorra, bide gogorra. Baina, urriko Kilometroak ez dira nahikoak. Urte osoan ibiltzen jarraitu beharra dago, hankak lurrean eta begiak helburuan ditu-

gula: "Ibil hadi erreposki, urrunera behatuz" diote beste aldean. Alegia, urrian lurra prestatzean nolako emaitza nahi dugun eduki behar dugula gogoan: "Urrian ongari, arabieran uzta berr" ere esaten bait da.

Eta bidean goazela, Etxalarreraino iritsi gabe ere, uso bandak ikusten ditugu geure buru gainetik hegaka. Urriko kilometroak egiten horiek ere. Ekologistek eta ehiztariek bestelako begiz ikusten dituzte, ordea: "urria, usoen galgarria". Bakearen usok ere badu lanik saerak eta tiroei faltsiki egiten.

Airean ez-azik uretan ere ez dira arazoak falta. Urte exkaxa joan da antxoetan aurtengoa eta hegaluzeekin ez hobea. Egueraldiak ez du gehiegi lagundu eta Leonen bildu ziren Frantziako eta Espainiako ministroen ere sare inportanteagoak omen ziztuzten alpatzeko pelagikoak baino. Ea Madrigo elkarrizketek esperantza hoberik eskaintzen diguten, izan ere, "urriko tenboretan zer haize, negu guzian halaxe".



ASTO PIXTOLA

Ez dakit zergatik deitzen genion Asto Pixtola. Hondarrarian halako hitzik esateko ohiturarik ez bait da. Behar bada, berak esaten ote zuen eta jendeak, berri edo txokante gertatzen zitzaiziolako, berari deitzeko erabiltzen zuen?

Dena dela, guk geuk Asto Pixtola-ren esannahia gizon haren axaleko itxura fiskoari lotzen genion. Gizon puska izugarria bait zen, dena tzitzi, tortollo eta borobila, gizajoa gaizki egina, nahiz eta belauetara ino zeraman blusa beltz hark asko estali. Tximitekin antza edo bazuela esango nuke. Hizketan ere, mantso-mantsoa ari-tzen zen.

Gure ume begiek erabat Asto Pixtola-tzat zuten gizon hura. Baina ez zen axaleko agerpena berari begiratzera behartzen gintuen bakarra, bere bi beso muturrak baiziki: ez bait zuen eskurik. Beso mutur batean, bertsio paperak eta, bestean, botak lotzeko lokarriak zintzilik, ikustekoa zen norbait erostera hurbiltzen zitzaionean nolako abildaearekin berxten zituen salgaiak. Sosa jaso, patikeran sartu eta itzuli, guzia patxada haundienarekin eta ixildu gabe, bertsioak kantari.

Behin eta berriro ekustez aspertzen ginenen, "Asto Pixtola! Asto Pixtola!" buria eginez korrika joaten ginen.

Pertsonearen bizitza eta izateak berarekin daraman izana, den, eta izango den ligadura horretan, ometzen dira gure pentsamendu eta sentimenak. Eta atzo, ume bezala, Asto Pixtolaren izate guzia axaleko itxura hutsarekin lurperatzen banuen ere, gaur neure barrenean ometuz doan pentsamenduak gizon haren barren aberatsa ikustarazten dit, denbora berean, halako haunditasun eta osotasunaren aurrean, neure pertsonearen neurri eta limitazioez jabetzen naizelarik, konturatu, nolako barrango indarra beharko zuen bere egoera hura onartzeko, eguneroko ogia irabazteko modua bilatz, konplejo eta trauma guziak onperatu eta herri guztietako kale erdifik bertsio kantari ibiltzeko. Zenbat dohai Asto Pixtol baten itxurapean...

Berari zor dizkiogu geure buruko txokoren batean gogoratzen ditugun "Markesaren alaba", "Nagusi jauna" eta estropaden bertsioak.

Euskaraz bera zen bakarrik kalez kale

abesten zuena. Fuerte xamar hasiak bait ziren besteak ere, "Rosio, ay mi Rosio", "Mari Crus" eta Carlos Gardelen tangak. Baina, bai zera! gure Asto Pixtolak, bere abots bortitz eta zakarrarekin, denak gaintzen zituen.

Eta hori bakarrik ez. Harriturik gelditu nintzen mugaz beste aldean ikasi nuenarekin: hantxe ere ibiltzen omen zen herriz herri bertsio kantari, hango anakia frantses lozorrotik esnatzen eta hilzorian zegoen hizkuntza berpizten. Bere ikusmen argiarekin, burnizko borondatearekin, bakarrik, inoren gixongillo izan gabe.

Ez, ez zen edozein gure Asto Pixtola.

Zalantzan nago, gaur naizen honek, jakin ote duan gizon haren dohai eta aberastasunak agertzen. Ziurki ezetz. Gero izango naizenaren pentsamendu ometu-goa eman beharko bait du bere neurriaren iritzia.

Lourdes Zubeldia



Irailaren 18an, igandea, Donostiako Kontserbatorioko Banda Sinfonikoaren Kontzertua izan genuen Gipuzkoa Plazan. Bera izan zen Udal Kultura Kontseiluak aurtengo udan zehar eskaini digun programa trinkoan azken saioa.



OHARRAK

EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 6etan Portuan (haurrentzat)
7,30etan Portuan

IGANDEETAN:

Goizeko 8,30etan Betherranean
9etan Amuten
9,30etan Guadalupen
11etan Portuan

TXANDAKO BOTIKAK

Urria 3 - 9: Mayi
10 - 16: Iraola
17 - 23: Erauskin
24 - 30: Mayi
Azaroa 31 - 6: Iraola
7 - 13: Erauskin
14 - 20: Mayi
21 - 27: Iraola

Mayi, Alm. Alonso Kalean - 642191
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

Urria 2: Arratibel
9: Garmendia
12: Martinez
16: Arratibel
23: Garmendia
30: Martinez

Azaroa 1: Arratibel
6: Garmendia
13: Martinez
20: Arratibel
27: Garmendia

Arratibel, Zubieta Kalean - 641975
Garmendia, Santiago Kalean - 641136
Martinez, Kale Nagusian - 641212

ABUZTUKO EGURALDIRIK EDERRENA

Joan den udako astelehen bat zen.

Eguerd-eguerdia.

Eunik ez zuen ari, baina itsasoa haserre zegoen, zerua goibel, lainoak ur beltzez kargatuak manto-manto ekialderuntz.

Butroiko paselakuan bi gizon eta lau kainabela; arrainik ez; marea gorantz, bete-betea. Hamabietan, ilun!... Eta hor dator argiak piztuta autobus urdin handi bat, "Muela" zegoen aurrean geratu zen, eta hustu zituen bi atetatik gizakume helduak..., pasialekuko mutur hori bete zuten arte.

Neu, porlanceko jarlekuan eserita, begira, eta ikusi nion matrikula: ZA, aragoindarrak.

Lehortarrak itsasoa ikustera.

Horrelako bidaletan sarri gauza bera gertatzen da: gehienek ez dakite ezer, baina bada norbait asko dakiena.

Beste guztien muinak honen kasokan hustu balituzte bezala.

Buruaz gainera bazuen gizon luze honek agintzeko planta ere, gabardina jantzia, eta beste guztiak itsasoak liluratu karelean zeudela, hau gora begira eta eskuan zekarren aterkia irekitzeko prest. Euriari deika balego bezala, bakarrik hizketan, zegutxiotan ere esan zela bidaideei, aterkia ekartzeko, iparraldeko lurralde honetan udan ere euria egiten duela, eta, hara, hala gertatu... edo gertatuko!... eta inork ez zuela jantzi lodirik ekarri eta hemen hoztuko zirela zahartxoak...

Marmarrean ari zen gizona, nire ondoan, zutik... Gero nire alboan eseri zen eta galdetu egin zidan ea ni bertokoa nintzen; neuk baietz hemen bizi nintzela... Bada bera lehen egona zela hemen, jubilatua aurretik, lrunen soldaduzkan zegoen seme bat bisitatzeraz, orduan honeratu zela itsasoa ikustera, eta, beraz, ongi aski zekiela hemengo zerua zein beltza zen, zenbat euri egiten zuen... Itsasoa zela hemen ikusgarria, asko mugitzen zena..., eta arrain ona hemengoa, eta ez Mediterraneoko substantzi gabekoa!... "Hori zegoen ona, zeren eta eguraldia, infernuko haize-euria...; neuk arnaketan tren hartu behar nuen, baina ordu pare bateko bisita baliu zuen hemengo taberna batetan egin nuen otordu hark"...

Horregatik ekarri zituela hainbeste lagun honeraino bazkaritara...

Neuk ez nion oraindik ezer esan; ez neukan ezer handirik esateko ere, baina ez zen beste inori hitza emateko! Bakarriketan ari zen bitartean lainoak ez zeuden lo, bazihazozen abiadur handian ekialderako zitaren batetara, goien eguzkia irteten hasi, orduerdi batean zeruitsasoak argitu eta be-



rehala jarri zen abuztuko eguzkia kaskoak berotzen!... Nire ondoan hizketan ari zenak erantzi zuen gabardina, laster kuadroko jaka lodia ere... eta isildu egin zen.

"Hara -esan nion- sortea izan duzute azkenean, primerako eguraldia datorkizute".

Ez zitzaion gustatu:

"Baina ez didazu esango hau hemen, norlean, gauza normala denik!".

Bitartean, jubilatua sakabanatu ziren pasecan, batzu karelean eserita eguzkia hartzen, besteak arrain bat harrapatzen ikusi nahil, eta beste batzu, ausatenak, espigoinetik aurrera zihoazen.

Hala ere norbait gogoratu zen jefear, eta zahartxo irripartsu bat etorri zitzaion, galdetza, ea non jan behar zuten, ordukata joa zela... Eta honek txantxaz esan zion jefeari, bezperatik hasi eta hainbeste aldiz gero, iteterakoan bertan ere hainbeste sermoi: aterkia eta gabardina, gabardina eta aterkia, bide guztian, eta hara hemen eguzkia!...

Ez zitzaion gustatu... Muturra jarri, altxa zen, eta jakako goi poitsilutik txilbitua atera eta hiru zitzu luze jo zituen.

Adi zazul, irakurle, militarizatu baleude bezala jarri zituen zahartxo guztiak korrika!

Niri agur esan gabe joan zen pauso handiz bere ardiak biltzera.

Denbora eman izan badiza esango nion, bada, Hondarribiak abuztu guztian

izan zuen eguzki guztia eskaini genielea.

Baina behar bada ez zuen sasi-jefe pessimistak poz hau merezi.

Martin Ugalde



KILOMETROAK 88

Aurtengo Kilometroak bertan izan ditugu. Aipatzen zen izena lrun bazen ere Hondarriria ere tartean zebilen lurrez eta Txingudi ikastolaren historian ere. Kilometroak antolatzen ere hondarribiarren partaidetza ez da txikia izan.

Eta eginahalak bere fruituak ekarri ditu. 100.000tik gora lagun zirkuitoa barrena oinetakoak astintzen, 10.000 ibilgailu, tren bereziak Eibartik eta Brinkolatik, 70 autobus, e.a. Tarte horretan zebiltzan batzuen eta besteen kalkulak. Marka berria, beraz, aurtun lortutakoa, euskaltze guztion porzerako.

Hainbat lagunek osatzen zuten giza ibaiak egun osoz setiatu eta zeharkatu zituen lrungo kale eta inguruak gure zorionik beronenak merezi dituen antolaketa txaloga-riak. 1.600 lagun aritu omen zitzaizkigun egun horretan eta aurrekoetan izan diren ekinak prestatzen. Jarri ziguten eguraldia ere ezin hobea izan zen mendi-kaleetan barrena ibiltzeko.

Hamabost zelaitan prestatu ziren apar-kalekuei esker nahiko lekua izan zen kotxe uholede izugarria kokatu ahal izateko. Ertzairek, udaltzairek, eta boluntario talde batek zuzentzen zituzten joan-etorriak. Momenturik estuena eguerdiko hamabiak aldean izan zen golf inguruko errepide zatian.

Goizeko bederatzietarako jendea Txingudi ikastolaren inguruan pilaturik zegoen eta Ardanza lehendakariak burdinazko atea ireki zuen lrungo bandak "Agur Jaunak" jotzen zuelarik ibilaldia hasiera emanaz. Joseba Arregi Kultur Sailburua, Mari Karmen Garmendia Hizkuntz politikarako idazkaria, Imanol Murua Diputatu Nagusia, Alberto Irujo Alkatea, Alfonsito Ornoz Hondarribikoa eta hainbat ordezkari hartu zuten parte instituzioen aldetik euskararekiko abikimendua adieraziz. Ikastolaren aldetik Antonio Kanpos eta Markos Amundarain genituen ordezkari aipagarriak. Bestalde, erreibindikazio politikoen pankartak eta mugidak ere ez ziren faltatu ibilaldian eta egunean zehar. Eguerdian, Amnistiako Batzordeak antolatutako manifestazio bat izan zen lrunen 3.000 lagunek osatua.

Denak elkarturik eta euskararen alde bat eginik, mugarik gabe, aurtengo lemak aldarrikatzen zuen bezala: "Euskarari mugarik ez". Bidasoaren muga gaindituz ere Seaska-ko lagunak etorri ziren Hendaiaren aldetik eta Nafarroako matrikulak eta "Nafarroa oinez" laster dugula gogoratzen zigen propaganda ere non-nahi ageri ziren. Hain zuzen ere, bildutako milioietako zati bat hizkuntz irakaskuntza ikertzeko gastatuko delarik, gainerakoa lparalde eta Nafarroako ikastolei laguntzeko erabiliko da. Berrogei bat milioi biltzea espero da aurtengoan.




7⁸ kilometrotako ibilaldiak mendi artean hasten bazen ere semaforo artean kale-kale zuen bide gehiena. Honek lrungo kale batzuk etetea edo itxia eskatu zuen eta beste zenbaiten norabidea aldatzea. Zirkuito urbanoa zen, beraz, aurtengoa horrek adierazten duen guztiarekin, are gehiago lrun Gipuzkoako hiri erdaldunena izaki, antolatzaileek behin eta berri Kilometroen aurkezpenetan gogorazari diguten bezala.

Txarangak, pailazoak, antzerkia, bertso-lariak, kirolariak, artisau lanak, delta hegaldia, zaldi ibilaldiak... denetik izan zen ibilaldia giroten eta animatzen. Irratizaleak ere ikusi genituen rulot horietako baten eta 27 erresumarekin lortu omen zituzten harremanak, URSS, Estatu Batuak, Indonesia eta, noski, Europako beste askorekin. Joseba Sarriegik esaten zigunez zail gertatu zitzairen egunez Hego Amerikarekin kontaktatzea, gauean, berriz, ederki iristen omen ziren hango mezuak.

Arraska handia izan du, beraz, Kilometroen hamabigarren edizio honek eta lagundu nahi duenak badu oraindik ere auktura hiru kontu korronte hauetan: Gipuzkoako Kutxan 335.583,1, Munizipalean 000/134960,4, eta Lankide Aurrezkan 059.0.0246,1.

Dena den, milioiak nahita-ezkoak badira ere, azken finean hizkuntzak behar duen indargarrik premiakoena berau erabiltzea da. Kontzientzia pizte hori lortu baldin badute aberatsak izan dira Kilometroak. Ibilaldi hori, ordea, ez da bukatu egun artako arratsaldean, horiek egunero egunero egin beharreko kilometroak ditugu, nahiz eta askotan aldapa gora gertatu. Hain zuzen ere ibilian eta erabilian goxatuko eta leunduko da bidearen latza.



BERTSO BERRIAK OILLO LENTILADUNEI JARRIAK

KILOMETROAK-88 direla eta, aurreko irailaren 25ean Irungo Avenida Zinemaren bertso ederrik aski eskeini ziguten sei bertsolari mardulek. Zenbait serioren tartean izan zen iraginaririk ere aski. HONDARRIBIA aldizkarira ekarri nahi izan ditugu batzuk irakurle zaletuaren entretenimena.

Joxerra Gartzia gaitzartzaileak:

"Zatozte Amuriza, Euskitze eta Mañukorta. Ba omen dago aleman bat oilentzako lentilak asmatu dituen. Eta nahiko harro dabil: izan ere, lentila hoiak jarri eta oilek dena gorri ikusten omen dute, eta gezurra badirudi ere, gorri ikustean, goriarekin edo, lasaitu bezela egiten omen dira eta hartara ez omen dira oiletegiaren elkarri mokoka hasten eta abar. Beraz, lasai-lasai egoten omen dira beren karioletan. Baina lasai egoten ere asperitu ere egiten omen dira eta, beste zer eginik ezean, itxura denez, arraultzek egin eta egin eta egin jarduten omen dute".

"Adelantu haundiko imentua omen da hori. Gauza hori, orde, asmatzea bat da baina probak ere egin egin behar izaten dira eta hementxe daukagu esperimendu hori aurrera ateratzeko aukeratu den oiletegia."

"Halaxe izango dugu, beraz, Amuriza oילו lentiladuna; Euskitze oילו antigualea, lentilarik gabekoa; eta Mañukorta, oilarra, noski!"

Doinua:

"Haizeak ekarri du handikan honutza..."

Amurizak:

Halako adelantua zaila de sinisten, begira lentilakin non jarri gaitzuten, orain oiloak ere arraultzein nahastan baina orain ez diat oilarik ikusten.

Euskitze:

Alemanian bada makiña bat kirten, hiri zer egin diken zaila da jakiten: atzetik ari zaizkik irten eta irten, lehen ez huen hainbeste arraultza egiten.

Mañukorta:

Aurrerapenak, beraz, horra aleman txarrak; oilanda poltitak ta berdin oilo zaharrak baina nik'e badituttu neronen indarrak, lentilakin ez du bate sinesten oilarrak.

Amuriza:

Oilarra hortxe dago kotara ioa nonbait oso maite du nere oiloa baina aleman hoiak duten jenioa! nonbait ni izango naiz oilo judioa.

Euskitze:

Transformatu zaituzte bitizta guziko, normaltzen ia ez zera sekulan hasiko; oilarra jarri zaizu tipo itsusiko hoiakin ere ez dezu eder ikusiko.

Mañukorta:

Aleman bat hor, beraz, lentila egina oiluel begi bista kendutzen dakina, baina nik'e maite det nere atsegin: danai botako diet salto gordin bina.

Amuriza:

Oilarrak betikoa du bere konduta, indarra badu eta zertako disputa? beste lezuorikan ikasi ez du ta azpian jarriko naiz lentilak kenduta.

Euskitze:

Zu zera geratua oso apartian, arraultza pranko baina zeureztat kaltian, nahiz lentilaik ez izan nik begi tartian izarrak ikustettut honekin joatian.

Mañukorta:

Mila dozena arraultza ilian emana Euskadin izan daigun arraultz asko jana baina nik'e bete nahi det ondo bere lana: oiloi paken utzi, alde alemana!

Amuriza:

Alemanak hortako jende ijitoak, holakoxeak egin bait zitun Jainkoak. Lehen egiten nituen gorringo bikoak ta orain egingo ditut arraultz optikoak.

Euskitze:

Guziak hasi dira tipo horren kontra; oilar, zuk ez zazula hoinbeste gorrota. Alemanak hobe du honutze ez jota bestela honek berari helduko diota.

Mañukorta:

Batere ez det sinisten nik hoi enanik, hoiak ez dute galduko oilarraren lanik. Hona ez deila sartu behin'e alemanik, oilo toki honetan agintzen diat nik!

1988ko irailaren 25ean

Jesusmari Mendizabalek jasoak

BERTSOLARI TXAPELKETA HONDARRIBIAN

Bertsolarien Elkarteak erabakita aurtengo udazkenean hasiko den Bertsolari Txapelketako ekitaldi bat Hondarrribian izango omen dugu. Azaroaren 6an, Ama Guadalupeko aretoan. Saioa Gipuzkoako kanporaketari dagokio. Gipuzkoatik berrogei bertsolari aurkezteko omen dira eta taldeka banatuta Lazkao, Hondarrribia, Zumaia, Urnieta, Elgoibar, Billabona, Ormaiztegui, Errenteria, Antzuola eta Lizartzan izango dituzte kanporaketak.

Lehen asmoa abenduaren 11an egitea zen "Bordari" eta "Satarka" sarien banaketarekin batean, baina kanporaketa aurreratu behar izanagatik ezingo dira gauza biak egun berean egin.



Bertsolari saioa Puñako belardian urriaren 2an.

Blagan

JUAN MARI ALTUNA

Hondarbiak arranean aurten esku-ratu ttuen hiru banderez gain, aspaldiko urtetan egin duen denboraldirik onena orain dela gutxi izan du bukaiera.

Talde guziak egin duen aparteko lan hortan zerikusi handia du sasoi izugarriko gazte honek. Biñon garbi dago maila horietara allegatzeko sakrifizioak ez direla hemendik horrarakoak.

Berak du hitza...

-H: Hamalau urtekin Arraun Taldean sartzea zer zen, jostatzeko modu bat?

-J.M.: Bai, bueno, orduan entrenatzen genuen baño zen beste gauz bat: katxondeo gehiago... Gero kadetetan ta, poliki poliki, nahia da prestatzea seniorera ailegatzea, ta hasitzen zera ondo entrenatzen, ez orain bezela. Gero, jubeniletan fuertexago, eta seniorretan... nahiko fuerte.

-H: Eta txapelketak irabazten hasitzen yaiz: kadetetan Espainiako txapeldun, jubeniletan Espainiako selekzioan sartu, gero senior...

-J.M.: Lehenengo urtean joan nintzen Europako txapelketara selekzioarekin, regata internazionalak... ta bigarren urtean munduko Txapelketara.

-H: Ta hemeretzi urtekin Munduko txapeldun...

-J.M.: Bai, laukoan, hiru sevilanokin, Espainiako txapelketa bukatu, ekipoa egin zuten, hiru egun ibili, gutxi gora behera zerbait jakingo zuten, joan ginen Suizara, han lau estropada egin, lauak irabazi genituen, ta Munduko txapelketara joan ginen.

-H: Ta 81 ezkerotzik selekzioan, urtero finaletan sartu zake?

-J.M.: Bai, aurtan kenduta beti finaletan sartu gera... Jendea egoten da maila batean, ta faktore asko izaten dira: estropada da aste batean, ta aste hortan egon behar duzu ondo, ta ez aurreko astean edo hurrengo astean.

ELITEKO DEPORTISTA

-H: Eliteko kirolaria izateak bizimodu bat eskatzen du. Esate baterako, nola planifikatzen duk tenporada bat?

-J.M.: Hasten naiz urrian leian, eta bukatzen Munduko txapelketa ta gero. Bañon askotan, aurtan bezela, munduko txapelketatik etorri ta traineran segi... ta bukatzen duzu irailan 28an. Emaki nittuen lau urte hola, ta hartu ditti bi aste jai, nahiz ta zerbait egin: korrika, bizikletan... Arraun egiteko maila normalean sakrifizio handia egin behar duzu, biñon munduko txapelketara joan nahi baduzu, gauza askori kontu egin



behar diozu: alimentazioa, pisua zaindu, dieta ekilibratua, tenporada erdian ezin zera atera edozein ordura arte...

-H: Entrenamientuak eta...

-J.M.: 1983 ezkerko normalean entrenatzen dut bi aldiz egunean. Urrian hasi ta abendu arte egunean behin, larunbatetan goiz ta arratsalde, abenduko oportetan goiz ta arratsalde, ta urtarrilak aurerra goiz ta arratsalde.

-H: Zuen maila hortan osasuna kontrolatzen duzia, analisiak eta?

-J.M.: Bai, selekzioan mendikoak ditugu. Ta gaur egun, hemen, Hondarribiko Arraun Taldean baditugu bi mediko, ta haiegana joaten gera analisis egitera, probak egitera... edozein gauz bada, analisis bat egin, zerbait falta bazaio, bitamina-ber bat eman ta kontrolatu egiten da.

TRAINERA

-H: Diferentzia handia dago banco movitlik trainerara?

-J.M.: Beste gauz bat da. Diferentzia handiena ikusten diot giroan: trainerak du kanporan berotasun handia, oso giro ona. Gainera hamahiru gera, ondo entrenatzen duzu ta bada katxondeoa, folklore gehiago. Besteak askoz ere ixilagoa da. Teknikan buruz desberdinak dira: banco movitlik hankak asko erabiltzen dittuzu eta traineran ez. Biñon ez da jendeak esaten duen bezela, bat hemen ibiltzen bada beste-ean ez dela ibiltzen... Biak ezberdinak dira, baina biak egin daitezke.

-H: Gaur egungo ikuspegitik nola ikusten duk garai batean egiten zen arrauna?

-J.M.: Orain trainera da kirol bat. Jendea prestatu egiten da urte guzian. Batek esaten zidan lehen jendeak gehiago sufritzen zuela... Lehen jendeak bukatzen zuten lehortua entrenatzen ez zuelako. Ondo entrenatuta bazaude bukatzen duzu lehortua, biñon bukatzen duzu ta nola ondo entrenatuta zauden egiten zera recuperatu. Lehen zen nerretaz, folklore, ez deskriptio bezela, desafioko zirela edo... beste era batean zen. Jendea garai hartan gogorragoa zen, ohituta zeuden sufritzera, beudek esaten duten sufrimendu hori, bañon gaur egun kirol egiten duen edozein estudiantek badaki sufritzen.

Lehen zen beste era batera, konparazioak ez dira inoiz egin behar, lehenagoak oso onak ziren garai hartan. Bakoitza bere garai. Asko aldatu da, biñon saltsa berdina da, jendea piztu egiten da trainera etortzean.

-H: Ta traineraren aurtengo denboraldiraren balantzea?

-J.M.: Tenporada globalki ona, oso ona. Hasieran firmatu egingo nuen aurtengo tenporada, biñon ikusi ta gero beti eskatu behar da gehiago. Alkarteak hiru bandera lortu ditu, batzuek esaten dute bigarren mailakoak direla, badakigu San Juan eta San Pedro ez zeudela, biñon hola atzetik gu ginen hor ta demostratu genuen ez zela suertea izan. Oraindik nahiko kuadrila gaztea daukagu, kuadrila bera jarraitu ezkerko urte pare bat posible izango zen gora joan, biñon kuadrila jarraitzea zaila da: bi lesionatzen direla, edo serbiziara... behar dena da hamahiru lagun biñon ondo konjuntatuak, nahi hiko konten nago, nere desilut-

sioa izan zen Kontxako bigarren egunean, orain laugarren geldituko ginen, biñon guk badakigu egun hartan biñon hobeto arraun egiten. Orain nahiko goian gaude biñon gogor lan egin behar da.

-H: Kontxa alera da eta, garbi dago Kontxak tenporada bat justifikatzen duela?

-J.M.: Bai, neri ematen badizkirate tenporadako bandera guziak, Kontxa ez beste, edo Kontxako bandera. Nik Kontxakoa. Nik eta edozeinek. Bueno, ezin duzu normalean atzetik ibili ta Kontxa irabazi. Normalean irabazten baduzu ez da suertea, da gai zereleko irabazteko. Atzetikan suertea txarrean posible duzu ibili, biñon aurretik suertea onez ez. Suerte pixar bat behar da, biñon suertean baitan inoiz ezin zera egon.

JOXE ARRIZABALAGA

-H: Hil berria den pertsona bat, Joxe Arrizabalaga: zer erlazio izan duk harekin eta nola baloratzen duk haren lana?

-J.M.: Pasafakoak pasa dira, batzuek kontra ziren beste batzuek alde, hori toki guztian bezela, biñon nerretzat Hondarrarian arrauna alxatu duena bera izan da, ta bere lana orain jasotzen ari gera, zergatik bere someak, gure patroia eta gure entrenatzaileak, egiten du bere attack nahi zuen lana. Nerretzat, pertsonalki, nere atta bezela izan zen, arraunlari bezela eta pertsona bezela gauza askotan laguntzen zidan, erlazio oso ona nuen. Nik behintzat asko zor diot gizon horeri, arraunean lortu dutena lortzeko nik entrenatu dut ta nik irabazi dut, biñon berak asko lagunduta, berak eta nerekin arraun egin duten arraunlari guztiak asko lagundu didate.



AURRERA BEGIRA

-H: Orain arte egindakoaz ari gera, hemendik aurrera fuerte segitzeko gogorik?

-J.M.: Bai, badakit maila internazionalen ibiltzea hori egotea dela. Jarraitzea da eta zure aukera denean aprobetxatzea, normalean jende gutxi irabazten ditut bi munduko txapelketa. Nik lan bat daukat eta baimena ematen badidate segitzeko gogoia dut...

-H: Zer bultzatzen du hortan segitzera, eta holako eginahalak egitera?

-J.M.: Zerbait egiten duzunean espero duzu zerbait lortzea, ta nik oraindik, gaur egun ez dakit zergatik arraun egiten duten, oraindik zerbait espero dut, zerbait nahi dut.

duzu eta ez dakizu zer den. Ez dakit zergatik egiten duten, ezin dut utzi arrauna, hori argi dago.

Nik jendea animatzen dut... Sartzen diren gazteak zer egiten dute? Batzuek utzi ta segitzen duten beste batzuek txoratu, ta egun guztian arraunakin txoratuak, ta hoi-keri ez esan estudiatzeko ta. Nik ere hori pasatu dut, biñon jendea esan behar zaio posible dela gauz bat eta beste egin. Nik egin dut, orduan egin leiken gauza da...

Tx. Sagartzazu

PERRITXIKOAK GURE HONDARTZAN

Aspaldiko kondairek diotenez, antzinan Hondarribitik Lezoraino lurra ikutu gabe iritsi omen zitekeen, adarrez adar joanda, Jaizkibel osoa estaltzen zuen basoan zehar. Garai hartan, hostoen trinkotasunaren azpian, erua guzietako perretxikoak egongo ziren segur aski.

Gaur egun, gure basoa soildu eta gero, birlandaketa loratu eta fruituak ekarriko dituen ixkaropenetan, ustegabeko tokietan aurki ditzakegu perretxikoak. Ez dago Aratzuko zelaietara igo beharrik. Joxe Mari Berrotarane (G.B.) esan zidanez hantxe sortzen ziren udaberriko perretxiko gutziagarrak; gauza harrigarria, zeren halako mota horiek itsasotik altuago egotea eskatzen bait du. Aski da aireportuko lorategira hurbiltzea, Joakinek segamakina pasa baino lehen, mota diferentek aurkitzeko, edo ta hondartza inguruan ibiltzea, eta bertan, udazkeneko egun hauetan, perretxiko ikusgarri bat atzemango dugu: "Urbeltz" izeneko (Coprinus comatus).

Mota honek kolore zuria du, gaztetan rugby baloi txiki bat dirudi, kolore bereko txorten zilindrikoak duenak. Axala ezkatatsua du, eskama antzekoez estalia, alegia.

Bizitza laburrekoa izaki, jaito eta bi egunetara, azpitik irekitzen da, kanpai itxurako sonbrilla bat balitz nezala, barruan, orrisa beltzak agertzen dituela, denboraren buruan, tanta beltz batzuk ixurtzen dituztenak. Hortxe datorriko euskal delitura.

Jaki bikaina da, zahartu aurretik prestatuz gero. Bere haragi samurrak, urtsua eta gerlitsu samarra, legatz kokotxak gogorazten dizkigu, ukitzean, ez zaporean.

Juan Antonio Muñoz, mikolo barakaldar zorrotzak, bereiztasun hori gogoan harturik, "mendi kokotxak" izeneko platera asmatu du. Perretxikopak, txortena kenduta, kaxuela batean olio eta tipula pikatuaz beratzen da. Bigundu ondoren, baztertu eta txiria batzuekin egin, saltza berdean, baratzuri, perrexil eta ardo txuri piska batekin. Nik das-tatu ditut, eta Goxoki-ko mahaikideak zailantzan ere jarri izan ditut, izan ere, txirik beren marisko usain goxoa kutsatzen diete perretxikoei eta ormitxoan kolore beltzak legatzetatik ateratzen dugun mokadu prezia-tua biltzen duen geruza edo axial mehearen itxura hartzen du.

Hondartza aliputu du gure herrikoan ugari sortzen direlako, baina bide bazterre-

Coprinus Comatus



tan eta zimauregietan ere atzematen ahal da, hondakin organikoak utzi diren tokietan batez ere. Beste perretxiko bakar batekin konfunditu daiteke: "Coprinus Atramentarius" delakoarekin, baina gogoan hartu behar da perretxiko toxiko honek ez duela ezkatarik bere kapeluan eta honek oso radio nabarmenak zeharkatzen dituela.

Juan Jose Lapitz

"AURTXXOA SEASKAN" KANTARI ZENBAIT OHAR

Gerraondo ekintzetan, gazte ginelarik, bateratsu ezagutu nituen "Aurtxxoa seaskan" deritzan kanta eta Klaudio Sagartzatzu "Satarka" zenaren **Txinpartak** olerki liburua. Hori aski zen, danbora latz haletan, egilea ezagutzeko berebiziko zioa sortzea nere gogoan. Ni kaxkagogorra izaki eta zein egun zoriontsua igaro nuen Madalena inguruan Satarka, Bordari eta hirurok mahaikide bildurik izan genuen hitzaspertuan. Bi olerkari hondarribiarok ezagutzean egin zitzaizkan hiri hau hunkigarri.

Geroztik, bi olerkari zenduen oroitza oso atsegingarri zait. Horregatik, Elgoibarko euskara mintegikoek elkar lanean eskolatarako atera duten hirugarren liburuan, **Euskal Hizkuntza eta Literatura** deritzanean, satarkaren irudia eta kanta hura irazkundirik ikusteak poz handia eman dik.

Egileen artean, Elgoibarko A. Alberdi, I. Garmendia, A. Ugartebeuru eta M. Villanostekin batean hiri honetan bizi den Marcos Balentziaga dator, behar bada hori esker sartua da Satarka. Olerkariaren lanak eta gizentasunez zenbait ohar interesgarri dakarki eta Luis Mariano irundarrari atsegin izatez gainera bere kanten erreperitorioan toki berezia ematera iritsi zirela dio.

Olerkia, **Txinpartak** liburuan argitaratua zen, 1922. urtean, baina doinua gerrate garai inguruan ezarri zioten. J. Olaizola alpaizen da hor doinu erasle, baina ziurtasunez azalduko badugu, Olaizola bi anaiak izan zute beren parte. Doinu Gabrieli zor zaio eta armonizazioa Joseri. 1937-1939. urteetan euskal kulturaren enbajada gisa Eusko Jaurlaritzak Europa eta Amerika zehar Ga-

briel Olaizolaren zuzendaritzapean igorri zuen **Eresoinka** taldea, bere historia J.A. Arana Martijak agertua da izenburu hori darian liburuan, eta bertan ikus dezakegu kanten egitarauetan behin eta berriz "Aurtxxoa seaskan" zerrendaturik.

Baina, gutik dakitena da, Satarkaren anai Txomin tenor bikaina zela eta hau izan zela ahots bakarrean lehen aldiz plazaratu zuena, piano laguntzaz. Geroztik norik ez ote du ezagutzen Euskal herrietan eta hemendik kanpo?


Olerkariaren eraginak, bere seaska kantaren bidez, musikari bihotzak irabazi zituen, doinua jartzetik era askotara aurkeztara arte. Hara hemen hitzez-hitz **Txinpartak**-ren hamahiru eta hamalau orrialdeetan datorrena:

Aurtxo polita
Seaskan dago,
Zapi zuritan
Txit bero...
Amonak dio:
Ene potxolo!
Arren egin ba,
Lo-lo, lo...

Dlin-dlan, dlin-dlan...

Ai biotzeko
Maite, kutuna,
Begi argien
Zoruna;
Ez da ludian
Iñor ere nik
Bainon geiago nai
Zaitunik.

Dlin-dlan, dlin-dlan...



"Satarka" (A. Valverde)

Gotzontxu eder,
Zoragarriak
Egan dabilta
Gañean;
Irri-barreka,
Laztan ta agurka
Laguntza egin
Naiean.

Dlin-dlan, dlin-dlan...

Txakur-aundia
Etorriko da
Zuk ez ba/dezu
Egiten lo.
Orregatik ba
Ene potxolo!
Egin aguro
Lo-lo, lo...

Dlin-dlan, dlin-dlan...

Juan San Martin

"HITZEZ HITZ" LEHIAKETA (2)

Jaietako zenbaki berezian "HITZEZ HITZ" lehiaketarako dei egiten genuen eta lehiakide saiatuek ez digute huts egin. Bost hitz eman genituen esan-nahia argitzeko eta epe barruan bidalitakoen artean hiru izan dira asmatzaileak: Alaitz Agirre, Marga Aristizabal eta Lierri Mendizabal. Zorionak hiruroi. Hiruroen azalpenak eta adibideak elkartuz eta laburtuz erantzun hauek eskaintzen ditugu:

1) AIEKA.

Alde, alderdi, bazter, inguru.
"Goazemizu aieka hartara".

2) ABANTIAN.

Arranean aurreraka egitea.

"Abantian faki ginela bateri arrauna erori zaio".

3) AIUA.

Kezka, ardura larria.
"Aiutan egon nitzen zu joan zinenean", zorrakena aiua".

4) APASTA.

Beita gisa arrainak erakartzeko uretara botzen diren arrain hondar txehetuak.
"Apastako txardinak".

5) ATAULE.

Jañaldi ederra, otordu oparoa.
"Ama Berjinaren egunean hura ataula in genuena".

Hurrengorako beste bost hitz hauek eskaintzen ditugu. Aurrekoan bezala, ortografiari nolabait errespetua galduz, esateko moduan idatzirik.

- 1) "motxokara" 2) "alateko (...)"
3) "inpromatu" 4) "anguxatua"
5) "baltz egin".

Erantzunak bidaltzeko epea datorren azaroaren 5ean bukatuko da.

Badakizue helbidea:

"HONDARRIBIA" aldizkaria
"Hitzez hitz" lehiaketa
Euskara Kontseilua
Udaltxea

20280 - Hondarribia

Asmatzaileen arteko lehen zozketa urtaril aldean izango da.

BITERI HERRI ESKOLA

ELKARRIZKETA

Jaiak izan direla ta, konpainia baten kapitainarengana jo dugu eta gure galderei horrela erantzun die:

- Zenbat deskarga egiten dira?
- Herrian bost eta Guadalupen bi deskarga egiten dira.
- Zergatik eta non egiten dira deskargak?

- Frantsesen aurka egindako gudaren oirigarri. Harma Plazan, Parroko aurrean, Udaletxe aurrean, Guadalupeko soroan, Guadalupeko Santutegi aurrean, hauek goizean; Do ne Pedroren Kofradi aurrean eta Harma Plazan arratsaldean.

- Nobenaren azken egunean ospatzen da beti Alardea, Zergatik?

- Irailaren zortzian bukatzen da Guadalupeko Amaren nobena. Egun horretan ospatzen degu bere eguna eta beti egun horretan egiten da Alardea.

- Zenbatgarren urtetan hasi zen Alardea?

- 1939'an hasi zen.

- Edonor Kapitaina izan daiteke, nola aukeratu dira?

- Bai eta konpainiako partaide guztien tartean, botuen bidez aukeratzen da; horrela aukeratzen dira kantinerak ere.

- Zergatik hemengo Alardean denok desberdin jaxten dira eta Irunen ez?

- Hemen gure herrian itsasoaren eragina handia da. Konpainia bakoitzak bere bereiztasunak ditu, Bakoitzak herria nolakoa den erakusten du: arrantzale zaharrak, gazteak eta abar.



- Kaldereroak nola edo zertarako ateratzen dira?

- Konpainiako soldaduentzat edariak emateko sinboloa.

- Lehen txokolatea ematen zen, zer gertatzen da orain?

- Ohitura batzuk aldatzen joan dira eta hori ere aldatu da.

- Badakigu lehen kantinera txikia ere ateratzen zela, zergatik orain ez?

- Ezin zutelako segitu ez dira orain ateratzen.

- Nola eta ez dira kantinera ezkonduak aukeratzen?

- Ohitura hori hasi zen eta orain ere segitzen du.

- Kontatuko diguzu anekdotaren bat edo?

- Orain urte batzuk gertatutakoa, konpainiako txistulariak ez ziren Guadalupea igo eta hutsunea herriko konpainiatik batzuek utzi ziguten. Beste batean Mendelu Olarxoko konpainiari bandera puskatu zitzaion.

5. maila

NERE AITONA "ALMIRANTE"

Kaixo lagunak, nere aitona arrantzalea izan zen eta garai hartan lagun batek jarri zion "almirante" ezizenaz ezagutua izan da beti.

Behin honen arrazoiak kontatu zidan eta gaur nik zuei kontatzen dizuet. Ea zer iruditzen zaizuen.

Nere aitona arrantzale zenean, itsasuntzi guztiek Donostiara joan behar izaten zuten gasoleo errotera, herri txikietan ez baitzen saltzen.

Behin goizeko zortziretan abiatu zen nere aitona bere unti "Xumarina" eta eskifai guztiarekin.

Hamarrek aldera, berriro Hondarribiko kaira itzultzen zirenean, halako batean, urrutian, txolla gogorra ikusi zuen eta nora-bidea harantz jarri zuen.

Txollara iritsi zirenean, nere aitona

bere lagunei horrela oihukatu zien: "Hau atun mordo! Goazen mutillak! Atzeman arraiak gogoz! Bete gure Xumarino zahar hau!".

Untzia bete zutenean, berriro ere Donostiara joan ziren atuna saltzera eta, baita prezio onean saldu ere.

Biharamunean, oso eguraldi txarra zegoen, itsaso gogorra barratik ateratzeko. Nahiz eta aitona beste patroiei ez ateratzeko esan, besteek aterata nahi zuten, aurreko egunean nere aitona arrantzale handia egin zuelako.

Azkenean denak abiatu ziren.

Barrara iritsi eta itsaso ikaragarria zegoela ikusi zutenean, nere aitona berriro kaira itzuli behar zela esan zioten. Orduan aitona erantzun zien:

"Nik lehen esan ta kasunik ez. Orain zuek gora eta ni behera."

Eta olaturen tartean hara joan zen.

Arratsaldean, oraindik ez zen nere aitona ageri eta kaian zeuden arrantzaleek, aitona erantzun bati esaten zioten:

"Ez duk sagardo gehiago edango hire lagun zaharrek, itsasoan galduta izango duk. Bihar goizean agertuko dituk hondartzan bere kapelua eta bere botak."

Baina aitona lagunak, Xamarak, barrara begiratzen "Xumarino" zetorrela ikusi zutenean zera erantzun zien:

"Gizon hori itsasoan aixa ibiltzen duk. Almirante batek baino gehiago jakin dik."

Ezkerroztik, nere aitona "almirante" izenez ezaguna da lagun guztien tartean.

Marcela Martinez

SAN MARKOS PARKEA

San Markos parkea, ekainean udaletxeak inauguratu zuen. Oso polita gelditu zen, baina udaletxeak zaindu ez duelako denborarekin loreak eta arbolak hondatzen hasi dira.

Guk Udaletxekoei horen parke polita ez deuseztatzea eskatu nahi genien.

Izaskun, Eduren, Amaia



EGUNGO GAZTEAK

Gurasoek egungo gazteek lehen baino askatasun gehiago dugula esaten dute, baina hori ez da egia.

Oraingo gazteok lehen baino arazo gehiago edukitzen ditugu, bai etxean, kalean eta toki guztietan.

Oraingo gazteok arazoak izaten ditugu, adibidez etxean: gurasoekin konpontzen zer geranean eta eudek arrazioa eraman behar dutenean, eduki gabe, guretzat arazoak sortzen zaizkigu gurasoekin konpontzen ez garelako. Hamairu edo hamalau urteko gazte batek bere lagunekin arratsean da-

goen jai batetara atera nahi badu, aita edo amak ezetz esaten dio, oso gazte delako eta eudek urte horietan horrelako gauzarik egin ez zitzaketelako; txikiagiak eta onartuegiak gerala botatzen digute aurrean.

Baita ikasletako lanetan edo azterketan nota baxrak ateratzen baditugu, alperontzi batzuk gerala edo kolperik jotzen ez dugula esaten digute.

Eta haiei galdetzen badiegu:

—Eta zuek, zer egiten zenuten gure adina zenutenean?

... eta lanean ari zirelako, ez zegoelako dirurik edo horiek ez direla gu arduratzeko gauzak esaten digute. Batzuk izaten dira.

Guzti hau gu bezalako arazoak pasa behar ez dituztelako gertatzen da. eta momentu hauetan gazte guztiok gertatzen zaizkigu arazoak ezagutzen ez dituztelako; bakanrik euderi gertatu zitzaien axola zaie eta guk eudek bezalako bizia eramatea.

Baina guretzat ezinezkoa da, denbora aldatu da eta gure bizimodua ere. Horregatik, zergatik gauza batzuetan haien bezala izatea eta beste batzuetan orain bezala izatea nahi dute?

Guri, gazteoi, orain gertatzen ari dena bizitzeko axola zaigu, ez beste batzuek bizi dutena.

8. maila

ARRANTZA

Herriko jaiak pasa ondoren, bakoitza bere lanera bueltatzea derrigorrezko denez, arrantzaleak ere itsasoratu zaizkigu. Legatzetara batzuk, hegalezterara besteak. Badira sasoi honetan ohi denez, belar bila irten direnak ere. Tamalez, azken hauek ez dute oraingoz sortu handirik izan eta ez omen da eskasagatik izan, itsasoa bareegi aurkitu dutelako baizik. Itxura denez nahitaezkoa da itsas mugimundu handiagoa, itsatsita dauden belar hauek beren euskarrietatik aske daitezen.

Zenbait momentutan sasiak dabilzen hegalezterari arrantza onik egin badute ere, urria, denborala dela eta, aurreko hilabeteak bezain txarra gertatzen ari da, itsaso zakarrak lanak uztera behartzen bait ditu.

Legazteriek, aldez, arrain gutxi haterman dute eta, noski, salneurriek gora egin



dute. Hauek izan dira Bentako azken prezioak:

Legatza	Kiloko 1.600 pezeta
Mediana	Kiloko 1.200 pezeta
Peskadila	Kiloko 900 pezeta

Urtero garai honetan legatz gutxi sartzen da gure Bentan, azaroa hila eta hobeaz izaten delarik legazketarentzat.

Andres Olaskoaga

IRAILA - URRIA

Nahiz eta gaur egun hilean esanahia jende askorentzat galduea egon, euskal egutegiko hilek badute baserriarekin edo bere bizimoduarekin zer ikusi handia. Horrela, iraila eta urria urteak dauzkan hilerik esanguratsuena izango dira ziur aski. Gisa hontan, irailak, iratze edo garoa biltzeko hila dela adierazten digu eta, Urriak berriz, negu luzaeraren atarian gaudela eta beraz Urtsintxak eta saguak egiten duten moduan, uzta biltzen ahaleginak egin behar ditugula.

Orain dela urte asko ez dela, lurrali gorrotza eta kisua (karea) beste ongariarik ematen ez zenez, estimazio handia izaten zuen iratzeak, eta horregatik ulertzeko zena sasoi hau hiltzen zenean, nola ibiltzen zen jendea bat-besteari kendu beharrean ikustea. Orain ordea, gauzak aldatzen ari dira eta esan daiteke garai haietako "materiala prima" nagusia zena, egungo abono mineral modernoak asko ordezkatu duela.

Udako azken atzarnak igarotzen joaten den heinean, poliki-poliki, azken beroak ja-

sanez, ia konturatu gabe urrian sartzen gara. Izenak berak dion bezala "Urria biltzeko aroa". Garai batean, neguko elurteak errezago igarotzeko edo, hil hontan egin behar izaten omen ziren eginahalak frutuak etxeratzen. Garai haietan, ez zen ez gaur egun "domingeruok" kapritxo doi-doi probatzeko lain gaztain biltzen ibiltzen jendea, baizik eta gure gurasoak dioten bezala, gaztain, intxaur, sagar, mizpira, etab... izaten omen zen negu parte gehienean jango zen janaria eta ondorioz bildu egin behar. Zerbaitengatik esango zen ondorengo esatera hau: ¡Gauza gordea urre gorria!

Ezin utzi dut aipatu gabe Euskal Herrian sagarrak izan duen historia. Baserri askok izaten zuen bere sagardia edo sagastia eta horregatik ez zen harritzekoa izaten etxe askotan urtearen parte gehienean jateko nahiko sagar edukitzea, batez ere urtate on xamarra tokatu ezkerotik. Lehenbizi-koak, San Juanak inguruan hasten ziren, gero Santio sagarrak, ondoren Andre Marietakoak eta horrela neguaren sarrera eta. Azkenaldetik hauek izaten ziren gorde beharrekoak, berauek izaten bait ziren gogorrenak eta beraz, Udaberri alderaino irauten zutenak. Sagarrak jarraituz, ezin

ahaztu ere sagar gezak bete izan duen patera, ia urte guztian jatorduetan sagardia bezalako edari goxoa mahaiaren gainean izan zedin laguntzen bait zuten.

Amaitzeko eta artikuluska honen ondorio gisa, nik uste baiezta genezakea, egutegia egin zeneko nekazariak lurra, ingurugiro eta urteko aroekin erabat murgildurik bizi zirela. Hitz batean esateko: Bizi beharrak "naturistak egiten zituela".

J. Bereau



TXEMA OLAZABAL ALEMANIAN NAGUSI

Txema Olazabalek, hogeitabi urte dituelarik, Europako golfari onenetakoa dugula frogatu digu berriro Alemaniako Solitude Clubeko zelaletan. Irailaren 25ean txapel-dun gelditu da Masters lehiaketan bere "maixutasuna" erakutsiz. Ez da aurtengo lehenengoa, aurretik Belgikako "irekia" irabazi bait zuen. Garaipen honek hamar milioi gutxi gora-behera ekarri dizkio Txemari.

Lehiaketa oker samar hasi zen eta hiru-garren zuloan bereak egin zuela uste zuen Txemak. Gero, ordea, hobetuz joan zen eta hamasibogarren zuloa orduko lehenengoa zihuan handik aurrera bestekikoa aldea handituz joan zelarik. Azkenean bi kolperen aldea ateratzen zuten batean bigarren postuan 281 kolpe gelditu ziren Des Smyth irlandarrari eta Anders Forsbrand suediarri. Severiano Ballesteros seigarren postuan gelditu zen, Ronan Rafferty britaniarrarekin batera.

Txemaren ezugarrien artean aipatuene-



takoak, jokoan erakusten duen nerbioen kontrola eta kolpearen parabola neurtzeko hoztasun eta zorrotasun ikaragarriak dira. Horrela segi dezala!

ESKIFAIK DISKO BERRIA

Eskifaia Abesbatzak disko berri bat grabatu du XX mendeko eliz musikaz. Bertan "Missa brevis pro pace" eta Thompson, Kubizek, Vic Nees, Berger eta Sandström-en obrak egongo dira. Aurreko grabazioen artean "Sorlekua" dugu, Aita Donostiak armonizaturiko doinuez (1985), eta parte hartu izan du hiruzpalau aldiz Nazioarteko Abestalde Lehiaketak biltzen dituzten diskoetan.

Lerro hauek argitaratu orduko Eskifaiaik kaitaldi bat emana izango du Lapurdiko Getarian polifonia eta folklore obrak eskainiz. Bestetik, hil honen 21ean Sestaon eskainiko du kaitaldi bat, eta 27an Donostiako Miramar Jauregian ariko da, saioa Euskal Telebistako "Laino guztien azpitik" programan ikusteko aukera izango dugularik.

DEMOGRAFIA

JAIOETZAK

ABUETUA

- 12an IGNACIO Gonzalez Lasa
Gurasoak: Jesus M.^a eta M.^a Pilar
- 21ean IBAI Manduit Aznar
Gurasoak: Jose Ramon eta M.^a Kristina
- 23an JUGATX Jimenez Andres
Gurasoak: Alfredo eta Beatriz
- 23an ALVARO Garcia Rodriguez
Gurasoak: Matias eta M.^a Pilar
- 24ean PABLO Velasco Lopez
Gurasoak: Ramon eta Karmen
- 24ean BEATRIZ-EUGENIA
- 25ean MARTA Fontecha Las Heras
Gurasoak: Javier eta M.^a Yolanda
- 28an MARINA Aginagalde Santos-Juanes
Gurasoak: Pedro eta M.^a Teresa
- 30ean ANE Calvo Juaristi
Gurasoak: Gerardo eta Miren Arantzazu

IRAILA

- 13an MIKEL Maiztegi Cano
Gurasoak: Jose Ignacio eta M.^a Rosario
- 13an CHRISTIAN Rodriguez Losada
Gurasoak: Raul eta M.^a Isabel
- 16an MADDALEN Aginagalde De La Var-ga
Gurasoak: Aitor eta M.^a Lourdes
- 16an NAIARA Olaso Alzuri
Gurasoak: Karlos eta M.^a Kristina
- 16an UNAI Corta Gonzalez
Gurasoak: Sabino eta Angela
- 18an AITOR Gomez Corral
Gurasoak: Jose eta Zetilia

- 19an MADDI Lekuona Illarramendi
Gurasoak: Jose Antonio eta M.^a Milagros
- 24ean ANDREA Hermoso Azurmendi
Gurasoak: Pedro M.^a eta M.^a Claude
- 25ean ALAI Balerdi Auzmendi
Gurasoak: Jose Ignacio eta M.^a Aranzazu
- 26an PEIO Panades Villar
Gurasoak: Juan Jose eta Aranzazu
- 26an ELENA Fernandez de Casadevante Amunarriz
Gurasoak: Gonzalo eta Ane Miren
- 29an JABIER Jauregi Lazkanotegi
Gurasoak: Jose Ramon eta Begoña

EZKONTZAK

UZTAILA

- 24ean Luis M.^a Solaeqi Urkiri Hondarribikoa eta Sara Etxebeite Laruskain Hondarribikoa

ABUETUA

- 8an Sebastian Oiarzabal Lasa Irungoa eta Ana Guadalupe Goikoetxea Balerdi Hondarribikoa
- 13an Jose Manuel Juarez Caballero Hondarribikoa eta Margarita Alberdi Bergara Hondarribikoa
- 13an Jose Telletxea Ordoki Lesakakoa eta M.^a Idoia Zeiza Leiza Hondarribikoa
- 20an Francisco Gonzalez Mercado Hondarribikoa eta M.^a Begoña Salaberría Zeberio Hondarribikoa

IRAILA

- 2an Jesus M.^a Arbelaiz Calvo Hondarribikoa eta Nikolasa Emazabel Ornoz Hondarribikoa
- 3an Emilio De La Linde Ruiz Hondarribikoa eta M.^a Ester Bonal Sarro Barzelonakoa

- 10ean Jabier Urtizberea Rekarte Irungoa eta Koro Odriozola Aya Hondarribikoa
- 17an Jose Jabier Oña Fernandez Hondarribikoa eta M.^a del Mar Martinez Cordero Irungoa
- 23an Jose M.^a Carnicero Ortiz de Solorzano Hondarribikoa eta M.^a Karmen Garcia de la Hoz Madrilakoa
- 26an Azedine Handune Argeliakoa eta Ana M.^a Cabezon Mendiburu Hondarribikoa

URRIA

- 1ean Antonio Alonso Alonso Hondarribikoa eta Fabienne Dussel Boso Toulousekoa

HERIOTZAK

ABUETUA

- 23an Rosario Etxaniz Garitaonandia 75 urtekoa. Golf-eko bidean.
- 27an Eulalia Ezeiza Ugaldé 61 urtekoa. Euzkalkire 1 - 2.
- 29an Matilde Elzo Sarasola. Matxin de Arzu Kalea.
- 31ean Felisa Jimeno Aldama 46 urtekoa. Txindoki Etxea.

IRAILA

- 1ean Marcos Duinat Oiarbide 64 urtekoa. Gornutz Baserria.
- 12an Francisca Genua Labandibar.
- 13an Jose Luis Aramendi Aldazlegi 61 urtekoa.
- 17an Jose Iñarra Lekuona 80 urtekoa. Denda Kalea 5 - 1.
- 18an Jose Jabier Matxain. Saindua Baserrikoa.
- 24an Esteban Ezeiza Sorzabalbere 87 urtekoa. Kale Nagusia.
- 28an Ramon Oronoz Sagarazua. Saura-enea Mendelu.

UDALA

Urriaren 13an bi Pleno berezi izan ziren. Bigarren, gai bakarrek. Biotan tramite arazoak aipatu eta erabaki ziren batpat.

Hasieran Barne Errejimeneko Batzordeari dagozkion gaiak erabili ziren hala nola 1988.era (berandusko bada ere) Udal langileen lan-oporretako egutegia onartzea eta igazko maiatzaren onartu zen langileen araudiak, zenbait aldaketa eginin, aurtan ere indarrean jarraitzea. Aldaketak Enpresa Batzordeak egindako eskabideak gogoan harturik egin dira eta urteko lan orduetara soldatei dagozkie.

Bestetik Pedro Aginagalde ikastetxean eskola zaintzaile bat behar dela eta, lanpostu horretarako egingo den lehiketa-oposizioarako oinarriak onartu ziren.

KASINO ZAHARRA

Kasino Zaharra jubilatuen egoitza bihurtu delarik bertan egongo den tabernariaren ardura eta esplorazioa adjudikatzeko baldintzak ere onartu ziren. Ardura horren barruan tabernari lanez gainera kontserje bati dagozkionak ere egongo dira, baita etxea txukun mantendu eta garbiketaz ardura-tzearenak ere.

Bigarren Plenoko gai bakarra Kasino Zaharraren antolatzea eta funtzionamendua erabakiko duen araudiaren onarpena izan zen. Araudiak 40 artikuluko dituen bertan egoiztaren helburuak, eskubideak eta bete-beharra, ordutegia, erabilera, aurrekontua, Asanblada eta Juntaren osaketa, eta abar aipatzen dira.

EUSKALTEGIA

Euskaltegia dela eta, lehendabizi irakasle frogia gauditu zutenen zerrenda onartu zuen Plenoak. Irakasle izateko 70 lagunek eman zuten izena eta horien artean berderatzik gauditu zuten glotodidaktikazko azken frogia. Plenoak ontzat eman zuen zerrenda hori eta lehena Jexux Mari Alkain zelarik bere gain geldituko da aurtan Euskaltegiaren zuzendaritza. Berarekin batean Maite Larrañaga eta Miren Genua hasi dira dagoeneko irakasten eta besteren bat ere behariko da, zortzi talde gutxienez sortu baitira: bi goizean, beste bi arratsaldean eta azken orduan lau, berauetan euskalduntzen, alfabetatzen, irale eta EGA ematen direlarik. Azken orduko talde guztiak Puntaleko geletan sartzen ez direnez gero Udal harremanetan dago Biteri Eskolarekin beste gela bat lortzeko. Harresilandako etxea moldatzen denean nahiko lekua izango dela uste dugu. Aurtan 115 ikasle matriculatu dira Udalak ireki berria duen Euskaltegi honetan.

HIRIGINTZA ETA BESTE

Hirigintzan, Arau subsidioarioak eratze-ko Diputazioarekin hitzarmen bat egitea onartu zuen Plenoak. Bestetik, proiektu pare bat onartu zituen: bat 34-N poligonoa urbanizatzeak eta bestea, Kanpiñako Egitasmo Partziala dela eta Torrea S.A.-k aur-



keztu duen proiektu berriatzen.

Bestetik, egiten ari den Ospital berriaren deitura aztertu zen Irungo Udalaren proposamenez eta Plenoak izena euskara hutsean izatea eskatu zuen: "Bidasoako Eskualde Ospitalea".

Azkenean hiru auzi kontentzioso-administratibotara agertzea erabaki zuen Udalak. Bat Jaizkibelgo artizan bati artalde larratzeko baimena ukatu zitzaioela eta, eta beste biak Estatuaren Letratuak Udalaren erabakien aurka eragindako errekurtsok.

UDALZAINGOAREN ESTADISTIKAK

Javier Altuna udaltzain buruak eman digun txostenaren arabera, joan den udako multak (ekaina, uztaila eta abuztuak) 455 izan dira, igazkoak 534 izan zirelarik % 15 jaitsi dira aurtan. Zepoak, askoz gutxiago erabili omen dira aurtan, igaz 135 aldiz erabili zirelarik, aurtan 54 bakarrik erabili bait dira, % 81 gutxiago. 1986ean, berriz, 952. Grua, ordea, gehiago erabili da uda honetan: 104 aldiz; igaz 75 aldiz izan zelarik gorakada % 39koa izan da. Bestelako multak ere gutxiago izan dira: igaz 297 eta aurtan 324, % 8 gutxiago, beraz.

Multak jaisteko arrazoi bat trafiko plangintzan gertatu den hobekuntza omen dugu eta aparkalekuen ugalaketa. Bestetik ere udarako 12 udaltzain laguntzaile hartu izana laguntza handia gertatu da kotxe gi-

dariantzat.

Hondartzako aparkalekuan 43.209 berbil aparkatu omen dira aurtan eta igaz 35.614; %21ean igo da, hortaz. Hortik ateratzen den dirutza 8.641.800 pezetakoa omen da irailaren erdirako eta kobraketak urriaren 15 arte iraungo omen du. Parking honek Santiagoko egunean 2.846 berbil hartu zituen. Egun berean 12.000 auto gutxi gorabehera etorri omen ziren herrira, eta uda osoan 180.000.

Zoritzarrez, istripuak % 34ean gehitu dira aurtan, 86 izan bait dira. Hauetako 30 zaurituekin eta 56 zauritunik gabe. Igaz 64 istripu izan ziren eta zaurituekin 17; aurtengoen erdia. Istripu gehienak goizaldeko lehen orduetan eta asteburuetan gertatu dira eta maiatzeko edateagatik. Bestalde, bi pertsona hil dira kotxeek harrapatuta.

Aurtan lapurretak gutxiago izan omen da, % 10 gutxiago igazkoen aldean. Parte emandakoak 55 izan dira: 30 kotxeetan, 6 etxebizitzetan eta 16 ibilgailuak lapurtuta. Lapurretak zirela eta, igaz 61 salaketa izan ziren. Ibilgailu gehienak inguruetan eta leku bakartietan ebatsi dira: hondartzak aldean, Farolan, Guadalupen, Errotan, e.a. Salaketa guztietatik 17 argitu dira, % 31, eta ebatsitako ibilgailuetatik 8 agertu dira. Atxilotuak, 31 izan dira.

J. A. Letamendia

